

1960 ETA 1970EKO HAMARKADETAN ALPEETAN EGINDAKO MENDI-JARDUERA GOGORATUZ

Ordiziako Mendizaleak elkartearen 75. urteurrena dela-eta, Ordiziako eta Goierriko hainbat herritako mendizaleek osatutako sokadek Alpeetan egindako jarduera nabarmenenak aipatuko ditut laburpen honetan.

Euskal Herriko, Europako Mendietako eta Pirinioetako mendi-lerroetan barrena ibili eta trebatu ondoren, Alpeetara jauzia egiteko garaia heldu zen. Hala, talde ezberdinak osatuta, udako oporretan Alpeetako mendi garaienak edo erakargarrienak igotzeari ekin genion.

Nahiz eta saiatu naizen ibilaldi guztiak biltzen eta aipatzen, duela 50 urte igotako gailurrak eta partaideen izenak zerrendatzeak, nahi gabeko ahanzturak eta hutsegiteak egiteko arriskua dakar.

Barkamena eskatzen dut laburpenean guztiak ez badaude.

Joanjo Muxika

IGOTAKO MENDIEN DESKRIBAPENA EDO AZALPENA

MONT BLANC / MENDI ZURIA (4.810 m)

Bi eguneko jarduera da. Lehenengoan, segurtatzeko kable bat duen elur-pasabide arriskutsu bat gainditu ondoren ("bolatokia" ere deitzen diote), Goüterko (3.835 m) aterpera iristen da. Desnibela: 1.465 m; denbora: 5 ordu inguru.

Bigarren egunean: Goüterko aterpea - Mont Blanc

Dómeko lepotik Vallot aterpera igotzen da (4.360 m). Handik, Les Bosses hormaguneko ertzetik igotzen da (40°ko aldapa pikoa) eta ondoren Mont Blanc gailurrera iristen da. Zailtasuna: ertaina; desnibela: + 975 m; denbora: 5 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da. Desnibela tren geltokira: - 2.440 m; denbora: 12-13 ordu egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1961ean	Pedro Alda, Peli Eskisabel eta Gillermo Otegi(eguraldiagatik gailurrera ez ziren igo)
1962an	Pedro Alda, Gillermo Otegi eta Diego Sanchez
1967an	Mikel Arrastoa, Joan Cisneros, Felix Etxeberria, Jabier Miralles, Pako Ruiz de Apodaka eta Joxe Urbiet
1969an	Joanito Berasategi, Martin Garcia eta Fernando Terradillos
1970ean	Joanito Berasategi, Jesus Cuadrado eta Sebastian Sanchez
1971n	Xanti Mendizabal, Josu Oiarbide eta Pako Ruiz de Apodaka
1973an	Josune Nuñez Etxeberria eta Joanjo Muxika
1974an	Maiaio Mujika Pagnon eta Xanti Mendizabal
1974an	Bixente Goikoetxea, Nikolas Goikoetxea eta Joanjo Muxika
1975ean	Patxi Intsausti, Joanjo Muxika eta Dabid Zubeldia
1976an	Jabier Garin, Joxe Migel Latasa eta Joanjo Muxika



1962an Mont Blanc.- Pedro Alda, Gillermo Otegi, Diego Sanchez eta italiano bat

CERVINO (4.480 m)

Bi eguneko jarduera eskatzen du normalean. Lehenengoan, KleinMatterhornera doan teleferikoa hartu behar da. Berau Schwarssse lakuan bukatzen da (2.585 m). Handik, Hörnlihutten aterperaino igotzen da (3.260 m; 2 ordu inguru).

Bigarren eguna: Hörnlihutteko aterpea – Cervino

Hörnliko ertzetik gorantz, Solvay bibaketik jarraituz (4.005 m), III. mailako zailtasuna duen Moseley plakatik (burniak eta soka finkoak daude segurtatzeko) igaro ondoren, Shuler bizkarretik gorantz, elurrezko azken ertza gaindituta, gailurrera iristen da. Zailtasuna: handia gunee batzuetan; desnibela: + 1.220 m; denbora: 5 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da; desnibela teleferikoraino: -1.900 m; denbora guztira: 11-12 ordu egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1967an	Mikel Arrastoa, Felix Etxeberria, Jabier Miralles eta Joxe Urbieta
1968an	Martin Garcia, Josu Oiarbide eta Joanito Rubio
1969an	Joanito Berasategi, Martin Garcia eta Fernando Terradillos
1970ean	Joanito Berasategi, Jesus Cuadrado eta Sebastian Sanchez
1971n	Xanti Mendizabal eta Pako Ruiz de Apodaka
1975ean	Patxi Intsausti, Joanjo Muxika eta Dabid Zubeldia
1976an	Jabier Garin, Joxe Migel Latasa eta Joanjo Muxika



1976an Cervino – Joanjo Muxika

MENDI ARROSA / MONT ROSE (4.635 m)

Bi eguneko jarduera. Lehenengoan, Zermatetik Gornegrateko kremailera-trena hartzen da Rottenbodeneraino eramaten duena (2.815 m). Handik, Rosahütteko aterpera igotzen da (2.810 m; 5-6 ordu inguru).

Bigarren egunean: Rosahütteko aterpea - Monte Rosa

Hormagunean edo glaziarrean barrena, arrakala batzuek gainditu ondoren, Satteltole lepotik (4.330 m), harkaitzetatik eta elurra eta izotza dituzten eremuetatik gorantz eginez eta azken ertza gainditu ondoren, gailurrera iristen da. Zailtasuna: handia gune batzuetan; desnibela: + 1.840 m; denbora: 6-7 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da. Desnibela tren geltokiraino: -1.840 m; denbora, guztira: 15-16 ordu egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1968an	Martin Garcia, Josu Oiarbide eta Joanito Rubio
1970ean	Joanito Berasategi, Jesus Cuadrado eta Sebastian Sanchez
1971n	Xanti Mendizabal eta Pako Ruiz de Apodaka
1974an	Bixente Goikoetxea, Nikolas Goikoetxea eta Joanjo Muxika



1968an Monte Rosan, Juanito Rubio eta Josu Oiarbide

GRAND JORASSES / JORASSES HANDIAK (4.210 m)

Bi eguneko jarduera da. Lehenengoan, Planpincieux herritik (1.580 m), Boccalatteko aterpera igotzen da (2.805 m, denbora: 4 ordu inguru).

Bigarren eguna: Bocalatteko aterpea - Grandes Jorasses

Hegoaldeko mazelatik egiten den igoera. Sokekin osatutako harkaitz-gunea igaro ondoren, Whimper koularra gurutzatuz, Roches Whimpertik igo eta azkenean gailurrera iristen da. Zailtasuna: oro har txikia eta ertaina gune batzuetan; desnibela: +1.400 m; denbora: 6 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da. Desnibela herriraino: - 2.630 m; denbora, guztira: 15-16 ordu inguru egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1975ean Jesus Cuadrado, Martin Garcia, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos

1977an Jabier Garin, Joxe Migel Latasa eta Joanjo Muxika



1977an Jorases Handiak, - Jabier Garin eta Joanjo Muxika

AIGUILLE DE CHARDONNET (3.825 m)

Bi eguneko jarduera da. Lehenengoan, Le Tour herrian (1.460 m) hartzen den telekabinak de La Balme leporaino eramaten du. Handik Alberto 1.aren aterpera igotzen da (2.705 m; denbora: 2 ordu inguru).

Bigarren eguna: Alberto 1.aren aterpea – Aiguille de Chardonnet igoera egin eta behera jaitsi.


Le Tour hormagunetik hurbiltzen hasita 50°ko aldapa piko duen beste hormagune batetik gorantz eginez, Forbes ertzetik gandor batera joaten da. Harkaitz-blokeak eta jendarme ugariak sahiestuz gailurrera iristen da. Zailtasuna: III. mailakoa; desnibela: +1.100 m; denbora: 6-7 ordu inguru.

Jaitsiera: rappel batzuk eginez, igotako leku berdinetik egiten da.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1974an

Jesus Cuadrado, Martin Garcia, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos



PETITE AIGUILLE VERTE (3.510 m)

Grands Montets teleferikoak Aiguille de Grands Montetstera eramaten du (3.295 m). Handik, hormagunetik gorantz eskuinean dauden harkaitzetara joan behar da. Harkaitzezko eta izotzezko bitariko gunea gainditu ondoren, harkaitz-ertzetik gailurrera iristen da. Zailtasun: ertaina; desnibela: + 200 m.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik; denbora, guztira: 6 ordu inguru.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1974an

Jesus Cuadrado, Martin Garcia, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos



AIGUILLE DE ARGENTIÈRE (3.900 m)

Bi eguneko jardura da. Lehenengoan, Argentièretik ateratzen den teleferikoa hartuta Grands Montets geltokiraino joaten da eta handik, eskailera batez baliatuz, Rognonseko hormagunera jaisten da, ondoren Argentière hormagunea gurutzatuz, Argentièreko aterpera iristen da (2.770 m; 2 ordu inguru).

Bigarren egunean: Argentièreko aterpea – Aiguille de Argentière

Mendi honetan dagoen erdiko elur-korridoretik gorantz joan behar da. Jarraian, harkaitzezko eta izotzezko ertza gainditu ondoren, gailurrera iristen da. II. mailako zailtasuna; desnibela: + 1.130 m; denbora: 4-5 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik aterperaino.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1974an Jesus Cuadrado, Martin Garcia, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos



1974an Aiguille de Argentière, - Jesus Cuadrado, Sebastian Sanchez eta Martin Garcia

AIGUILLE VERTE (4.120 m)

Bi eguneko jardura da. Lehenengoan, Chamonixtik kremailera-trenak Montenversera (1.915 m) eramaten du. Handik, ferrata-bide batzuetatik Mer de Glacera jaisten da. Jarraian, hormagunetik aurrera egin behar da, eta azkenik, eskailera batzuetatik Couvercleko aterpera (2.685 m) iristen da.

Bigarren eguna: Couvercleko aterpea – Aiguille Verte

Aterpetik, Talefre hormagunearen azpian dagoen errimairaino joaten da. Jarraian, igoera guztiko zailtasun handiena duen 600 metroko desnibela eta 45-55°ko aldapa pikoa duen Whimper korridorea gainditu beharra dago. Ondoren, azken ertz estutik gorantz eginez gailurrera iristen da. Zailtasun: handia gunee batzuetan; desnibela: + 1.450 m; denbora: 9 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da. 10-12 rappel egiten dira errimairaino eta ondoren aterpera jaisten da.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1974an Jesus Cuadrado, Martin Garcia, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos



AIGUILLE DE ROCHEFORT (4.000m)

Bi eguneko jarduera da. Lehenengoan, Aiguille de Midiko teleferikoa bukatzen den lekutik (3.840 m), Mer de Glacera jaisten da, ondoren Punta Helbronnerko telekabina hartuta Torinoko aterpera joaten da (3.340 m; denbora: 3 ordu inguru).

Bigarren eguna: Torinoko aterpea - Aiguille de Rochefort

Aterpetik hormagunea edo glaziarra igotzen hasi behar da, ondoren harkaitz-gunetik Dente du Gèanten lepora iristen da (3.550 m). Handik, Rocheforteko ertza igo beharra dago. Harkaitzak, elurra eta izotza dituen ertz horretan, soka batzuk daude. Gune hori gaindituta gailurrera iristen da. Ikuspegi zoragarria du. Zailtasuna: handia gune batzuetan; desnibela: + 660 m; denbora: 4 ordu inguru.

Jaitsiera: rappel batzuk eginez, igotako leku berdinetik egiten da. Telekabinez eta teleferikoaz baliatuz Chamonixeraino jaisten da; desnibela aterperaino: - 660 m; denbora, guztira: 12-13 ordu inguru egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1977an Jabier Garin, Joxe Migel Latasa eta Joanjo Muxika



DOM DE MISCHABEL (4.545 m).

Bi eguneko jarduera da. Lehenengoan, Zermateko haranean dagoen Randako herrian hasten da (1.405 m), ondoren Domhütte aterpera iristen da (2.940 m; 3:30 ordu).

Bigarren egunean: Domhütte aterpea – Dom de Mischabel

Aterpetik irten ondoren glaziarrean barrena Festijoch deitutako gunera igotzeko soka eta aseguruz /segurtagailuz hornitutako II.en mailako zailtasun-gunea gainditu beharra dago. Handik Hobärg homagunera edo glaziarrera jaisten da. Azkeneko zatian dagoen hormagune edo glaziarrean dagoen 40º-ko aldapa pikoia zeharkatu ondoren gailurrera iristen da. Zailtasuna: ertaina; desnibela: + 1.600 m; denbora: 6-7 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da (Domhütte aterperaino 4 ordu inguru) eta ondoren Randa herriraino (2 ordu inguru). Desnibel metatua tontorretik: - 3.140 m; denbora, guztira: 11-12 ordu inguru.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1975ean

Patxi Intsausti, Joanjo Muxika eta Dabid Zubeldia



GRAN PARADISO (4.060 m)

Bi eguneko jardura da. Lehenengoan, Valsavaranche haraneko Ponten hasten da (1.950 m). Handik Vittorio Emanuele II.a aterpera igotzen da (2.735 m; 2 ordu inguru).

Bigarren egunean: Vittorio Emanuele aterpea-Gran Paradiso

Aterpetik irten eta glaziarra igotzen hasi behar da. Geroago eskuinerantz dauden paretetara hurbildu behar da. Azkeneko ertza nahiko erraza da. Jendetza biltzen da bertan eta segurtasuna bermatzeko iltzeak edo ainguratzailleak daude. Zailtasuna: ertaina; desnibela: + 1.325 m; denbora: 5 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da. Herriraino - 2.110 metroko desnibela; 11-12 ordu inguru egun berean jaisten bada.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1972an Joxe Mari Cuñado, Luis Mari Jauregi, Xanti Mendizabal, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos



MÖNCH (4.100 m)

Jungfraujoheko tren geltokitik hasita (3.455 m), ondo markatutako eta aldapa handiko bidetik Mönchsjoheko aterpera joaten da (3.630 m; 0:50 ordu inguru). Ondoren, II.mailako zailtasuna duen harkaitz-gune batetik igaro behar da (segurtatzeko burdinazko paldoak daude) eta, azkenik, 40°-ko pendiza duen hormagunetik edo glaziarretik gorantz eginaz eta 300 metro inguru duen izotzezko ertza gaindituz gailurrera iristen da Zailtasuna: ertaina; desnibela tren-geltokitik: + 640 m; denbora: 3 ordu inguru.

Jaitsiera igotako leku berdinetik egiten da, Jungfraujoheko geltokira; denbora, guztira: 6 ordu inguru.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1972an	Joxe Mari Cuñado, Luis Mari Jauregi, Xanti Mendizabal, Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos
1974an	Bixente Goikoetxea, Nikolas Goikoetxea eta Joanjo Muxika
1975ean	Joan Cisneros, Patxi Intsausti, Joanjo Muxika, Pako Ruiz de Apodaka eta Dabid Zubeldia



JUNGFRAU (4.160 m)

Bide normala Hego-Ekialdeko hertzetik doa. Jungfraucheko tren-geltokitik hasita (3.455 m), hormagunea edo glaziarra gurutzatuz, Jongfrau azpiko harkaitzetara iristen da. II. eta III. mailako zailtasuna duen ezproi bat gainditu behar da. Ondoren, Rottalsaltteko lepora iritsten da. 45º-ko pendizea edo malda duen azken ertza (paldo metalikoz hornituta dago) gainditu ondoren, gailurrera iristen da. Zailtasuna: ertaina; desnibela tren-geltokitik: +700 m; denbora: 4 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da, Jongfraujocheko geltokiraino; denbora, guztira: 7-8 ordu inguru.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1972an	Sebastian Sanchez eta Fernando Terradillos
1974an	Bixente Goikoetxea, Nikolas Goikoetxea eta Joanjo Muxika
1975ean	Joan Cisneros eta Pako Ruiz de Apodaka Patxi Intsausti, Joanjo Muxika eta Dabid Zubeldia



EIGER (3.970 m)

Bide normalena edo arrazena Kleine Scheideggeko tren-geltokitik (2.060 m) igotzen dena da, elur-gune batetik Mendebaldeko hormara daramana. 45°-50°-ko aldapa duen erteatik 400 metro eskuin aldera joan behar da. Ondoren, esertoki edo zela irudia duen Sattel deitutako gunetik aurrera, harkaitza eta elurra dituen bitariko duen gunean jarraituz, 50-55°-ko aldapa pikoan duen beste elur-gune bat igaro ondoren, gailurrera iristen da. Zailtasuna: nabarmena, gune batzuetan handia; desnibela tren-geltokitik: + 1.910 m; denbora: 7 ordu inguru.

Jaitsiera: igotako leku berdinetik egiten da, Jongfraujoheko geltokira; denbora, guztira: 14 ordu inguru.

ZEIN URTETAN MENDIZALEAK

1975ean Joan Cisneros, Patxi Intsausti, Joanjo Muxika, Pako Ruiz de Apodaka eta Dabid Zubeldia

